

## ERREKA ERTZEAN

Eguna urratu-ala, Jainko guren ori!  
oiuka nagokizu, barrua irrirts jori.  
Beiñola jolaska lez eder Zuk ereiña,  
jaso nai neuke pizkat, bai nintzan oreiña.

Goregi dakart beti gose-guramena,  
beian cukirik apal zure eder goiena.  
Zure antz-irudia zot ezker-eskuma,  
zeru-lurrak sòrtzean Zuk barreia zama.

Lagun zakidaz berau maitatuz ulertzen,  
begiak beera jetsiz Bere gurle izaten.  
Goi-oiñetzak aurkituz soin eta gogo Zu  
otsein zaidazan beti, barne-leia gartsu.

Ur daukadan erreka dot nik laztan oso,  
ura, lorak, sustraiak gura ditut jaso..  
Zuk erne-az zenduzan jainkozko arnasaz,  
Zeuk zainduz iraun-azten dituzu goi-loraz.

Esan cidazu, arren, Jaun jakintsu orrek,  
zer diñotson urari lore dardartiek!  
Zer diñotson urak, zer?, gabaz loratxoari..  
Maitasuna kantatzen al alkarri alai?

Jakin-min naz, o Jainko! Jakin gura neuke,  
era berean maite zaidazan nik Zu be.  
Esaidazu barbar zer diñotson alkarri,  
nik be olan itzegin daizudan Jaun orri.

*Igotz*